

Sistema dugu aldatu behar, eta ez klima !

Cancun-en erronkak !

Nazio Batzordeen Erakundea Klima Aldaketari buruzko negoziaketei hats berri bat eman nahiz arizanen da Cancun-en azaroaren 29tik abenduaren 10a arte. Mexikoko hiri hortan 194 herri bilduko dira Klimari buruz NBEk antolatzen duten 16. gailurrean. Topaketa horren helburua da akordio baten atxemaitea beroketa efetuzko gasen isurketa ttipitzeko eta horren bidez beroketa klimatiokaren gelditzeko.

Munduaren desafioa

Badakigu pertsonen gorputza normalean 37 gradutan dela. Grado bat gehiago eta sukarra badugu. Gure bizi oreka makurtzea mehatxatzen duten lehen sintomak agertzen dira. 3 grado gehiagorekin arras gaizki gira... eta 5 grado gehiagorekin, heriotza da.

Irudi horrek laguntzen ahal gaitu munduaren batzbesteko tenperatuaren igotzearekin zer arrisku diren ulertzen. Gaur egun, lur azaleko batzbesteko tenperatura 15 gradotan da. Aro pre-industrialetik geroz jasan dugu +0,7 gradoko igotze ttipia, baina hori bera aski da jada klima mailan ondorioak ukaiteko: ozeanoen maila igoz, poloetako izotza hurtuz, etab. Jada aipatzen dira 300 000 hil urtero klima aldaketari zuzenki lotuak.

+2 gradotara igotzen bada munduaren batzbesteko tenperatura hori, GIEC-eko klimatologo adituen arabera beroketa klimatikoa kontrolaz kanpoko fase batean sartzen da, molde batez tenperaturen igotzea "auto-elikatuz". Ezer ez bada egiten, horri buruz goaz mende bukaera aintzin.

Denak hunkitzen gaitu, elgarrekin behar gira mobilizatu

Biziki inportantea da nazio arte mailan eta norberak bere tokiko mailan mobilizazioa indartzea.

NBEan, 190 herritik goitiko negoziazioak zailak kontsideratuak izaiten ahal dira eta Estatu buru batzuk G20 bezalako topaketetan beren parte hartzea mugatzea hautatzen ahal dute... garatzen ari diren hainbat herri xume bazterrean utziz!

Ber maneran, aterabide faltsu batzuri ere hurbiltzen ahal dira konpromisu txarrak hartuz, eta gaitza errotik ateratzea errefusatuz. Hots laborantzan, etxegintzan, garraioan, energiaren arloan, etab. gaurko ereduak arrunt berriz pentsatzea saihestuz

Alta bada, klimaren bataila, behin iraganen da. Orain galduz geroz, aldaketa klimatikoa itzulerarik gabekoa izanen da.

Cancun eta Cancon

Hortarako mobilizatua egon behar gira, munduan zehar Via Campesina nazioarteko laborari mugimenduak deitu bezala, 1000 Cancun-etan parte hartuz. Molde ezin hobea NBEan gailurrari erabaki eraginkor eta zuzenak har ditzan aldarrikatzeko eta tokian tokika klima aldaketa borrokatzeko diren alternatiben plazaratzeko!

Euskal Herriaren kasuan, abenduaren 4an, denek Cancon-eko kontra-gailurrera gomita badugu trantsizio sozial eta ekologiko baten aldarrikatzeko!

**Denak Cancon-era,
trantsizio ekologiko eta sozial baten alde!**

Bizi !